

Herriaren eskuhartzeaz euskararen berreskurapenean

Azken urteotan, baina bereziki gure artean diskurtso berria zabalduz doan neurrian, maiz dihardugu gai honi astinduak ematen. Ondoren isuriko ditudan eritziak gaia bere lekuan kokatu eta eztabaida sustatzeko baliagarri gertatzen badira, lantxo honen zeregina betetzat eman beharko, hori bait da helburua.

Bide batez, esan dezadan, eztabaida honi urgentea bezain garrantzitsua deritzodala, neure ustetan, bederen, orain arteko jokaerak eman beharrekoak eman dituelakoan nago eta.

*Erakunde
herritarrek ez dute
asmatu:
Euskaldungoak
trinkotu gabe darrai.
Zeregin
puntualetietara
mugatu da gure
ekimen ahalmena*

Beraz, ahitua dagoena bertan behera laga eta bide berriak jorratze nahian honako atalez ihardungo dut: azken urteetako Euskalgintza, politikaren gerizpean; legediarekiko itsudura; diskurtso eta praktika berriaz.

I. Azken urteetako euskalgintza, politikaren gerizpean

Hasiera-hasieratik esan beharra dago erakunde herritarrek ez dutela asmatu: Euskaldungoak trinkotu gabe darrai. Politikagintzan gertatu bezala Maltzagaraino ez gara heldu eta barreiaketa nabarmena da. Aurreko belaunaldiek maneiaturiko metahizkuntza alde batera laga arren, zeregin puntualegietara mugatu da gure ekimen ahalmena.

*70. hamarkadan
alderdien
protagonismoa
medio, erakunde
herritarrak
mimetismoan
murgiltzeari ekin
zioten, ordutik
hona jokabide
antzu horretan
jarraituz*

70. hamarkada

Hamarkada horren amaieran eta 80.eko hasieran euforia eta erromantizismo garaiak izan ziren, politikagintzak gaina hartu zigun. Une haietan, katarsia medio, giro hori gaindigoa zen eta euskararen normalkuntza gerorako utzi zen.

Dena den, ikastolen sorkuntza-hazkuntzak aurrera egin zuen eta Alfabetatze-Euskalduntzea sendotze bidean sartu zen. Baina, irakaskuntzara mugatu genuenez normalkuntza, euskaldunoi eta euskarari itzaroteko, irakasteaz arduratzeko rola eman ziguten. Erabaki-guneetatik kanpo geldituz, periferia izaten behartu gintuzten.

Ondorengo urteak, alderdien protagonismoa medio, "santo y seña"ren urteak etorri ziren eta erakunde herritarrak mimetismoan murgiltzeari ekin zioten, ordutik hona jokabide antzu horretan jarraituz.

80. hamarkada

Hamarkada honetan berdintsu edo okerrago jarraitu genuen eta euskaldungoa kohesionatu eta eragin sozialik

eduki ahal izateko mugimendurik sortu gabe, instituzioen protagonismo sasoia heldu eta bakoitzak bere aldetik geniharduenez, trintxerak zabaldu eta inkomunikazioaren ohitura barneratu zitzaigun. Casinellok esango lukeen moduan "La división del todo" gauzatu zen.

Kopuru aldetik gutxi batzuk asko eman eta besteei beste horrenbeste eskatu genienez, bideraezina gertatu zen gure nahaia -KIN/-GAZ egin beharrean -TZAT egin genuelako.

Ondorioz

Kultura politikoan politika kulturalean baino gehiago sinistu dugunez klabe politikoetan ihardun da euskalgintzan. Ekimen prozedura presio hutsa egitea izan da, azken batean, politikagintzaren kalkoa. Alternatiba, bide berriak, oso gutxi landu dira. Horregatik ez da lortu galga baino askoz gehiago egitea galera-prozesuan.

Euskaldungo oso moduan zerbait egin denean politikarien baimenez izan da, agindua goitik behera etorriz, "Bateginik" kasu; baina hau "Batezinik" gertatu zen.¹

Bestalde, kantitate eta txapliguetan sinetsi izan dugunez gezur soziala elikatu dugu. Honek belaunaldi gazteengan kalte handia egiten dihardu.

Esandakoak argi adierazten du euskalgintzan ez dela autonomiarik egon eta protagonismoa hizkuntz komunitate euskaldunarekin batera, elkarlanean sustatu ordez, makroproiektuak, goitik behera eta talde itxietan, instituzio zein erakunde herritarretan, herrigintzak eskatzen duen eran barik, alderantziz, ezarri direla. Eguneroko interbentzioei garrantzia kenduz eta egunerokotasunetik urrunduz.

Jakina, horren faktura begi bistakoa dugu: proiektu askok proiektu izaten darrai, euskaldunok periferian eta inoiz baino segmentarizatuago gaude eta corpus² zein estatusen

*80. hamarkadan
bakotzak bere
aldetik
geniharduenez,
trintxerak zabaldu
eta
inkomunikazioaren
ohitura barneratu
zitzaigun*

*Klabe politikoetan
jardun da
euskalgintzan.
Ekimen prozedura
presio hutsa egitea
izan da, azken
batean,
politikagintzaren
kalkoa*

daukagun arazo sakonekin aski ez balitz, euskararen aurkako diskurtsoak zabaltzen dihardu euskal komunitatearen protagonismorik eza medio, euskara eta euskaldungoa defentsiba egoeran aurkitzen bailira. Normalkuntza barne hizkuntza, pentsamendu hizkuntza eta Nazio hizkuntza uztartuz lortzen da. Eiren, gogora, Nazio hizkuntza izateko aitormena egin bazitzaion ere bertako hizkuntzari, barne hizkuntza izatera heldu ez zenez, aitormenak deus gutxirako balio ukan zuen.

II. Legediarekiko itsadura

Kritiko izaten jarraituz, har dezagun hizpide eta jorragarri moduan Legediaz izan dugun eta daukagun itsumena.

*Legea oztopo bada,
euskal komunitateak
alda eraziko du,
baina horretarako
kohesioa, orain ez
daukaguna,
derrigorrezkoa da*

Berriro ere, kultura politikoaren eraginez edo, legedia hartu izan da normalkuntzaren erreferentzia nagusizat. Horrek, Leteren kantuak dioen bezala, "nahia eta ezinaren burruka-toki ekaitzez bete" bihurtu du euskalgintzan dihardugunon ahalegina, impotentzian murgilduz.

Lege guztiak aurka eduki arren Ikastolen proiektuaren inguruan egin zen bategiteak lortu zuen hauek onartuak izatea. Beraz, legea errealitateari egokitu zitzaion eta ez alderantziz.

Beraz, gure lege-iparra berezko eskubideak behar du izan. Euskal komunitatea osatu, zabaldu eta gizartearen periferiatik erdiruntz joan ahala, legea oztopo bada, euskal komunitateak alda-erazi egingo du, baina horretarako kohesioa, orain ez daukaguna, derrigorrezkoa da. Jakina, ez dago ukatzerik, Legea lagungarri gerta daiteke baina ezinbestekoa denik ezin da esan Eireko adibidea ezagutu.

Legearen eragina

Legediak ez du aparteko ilusiorik piztu euskaldungoaren artean, alderantziz esango nuke. Azken batean, legearen balore eta baliagarritasunaren ikaragarritzko aipu eta

lausenguak egin direnez, euskal komunitatearen eskuartze eta protagonismoa azpiko planoetan laga da eta, orain, hor dihardugu euskaldungoak bizkarra eman digula esaten, hezkuntza sistemaren, HPINen, Diputazio, Udal... eta abarren esku utzi edo delegatu duela bere zeregina.

Ez batzuek eta ez besteok ez dugu, behin baino gehiagotan zenbaitek hala agindu arren, egoera glotopolitiko konparatzerik, inork ez du irabazi. Hor darrai egunerokotasun derrigorrezko horrek irabazteke.

Diskurtso horrekin kontzientzia lasaitu egin zaio gehiengoari eta legeak profitatzeko damaigun aukera hori ere egunerokotasunean garatzera ez gara iritsi.

Beraz, alde batetik legearen oroegiletasuna saldu den bitartean, bestetik, hori gutxietsiz joan dira urteak.

Horrela bada, irtenbideen gainean ihardun aurrez, gutxi batzuen edo instituzioen eginkizuna denaren ideia hori irauli egin beharko da eta, besteek egiteko itxaron orde, euskal komunitateak esku har dezan moduak eta bideak jorratu beharko dira, orain arte euskalgintzan legeak izan duen gradua, hartu behar duen subjektuak eskura dezan: gizarte zibilak.

Horrek, zalantzarik gabe pragmatismoa, interakzioa, estamento guztien arteko komunikazioa eta praktika linguistikoa oinarritu beharra ekarriko du. Eta denborarekin Txepetxek aldarrikatzen duen Haustura Tentsioa.

Bada onurarik ere

Egin akatsen ondoan, alabaina, onurak ere aitortu beharra dago dena ez bait da beltza izan. Galgalana egin eta, bide batez, hainbat arlo eta ekinbide finkatu da, hala corpus nola status arloan. Ez noa exenplurik jartzera bat edo bat ahaztuko zaidalako.

*Alde batetik
legearen
oroegiletasuna
saldu den bitartean,
bestetik, hori
gutxiesten joan dira
urteak*

*Bideak jorratu
beharko dira,
orain arte
euskalgintzan
legeak izan duen
gradua, hartu
behar duen
subjetuak eskura
dezan: gizarte
zibilak*

*Garrantzitsuena
da, hizkuntz
berreskurapenerako
enpirismoan
oinarritutako
teoria soziala
finkatu eta
esperimentatu
dela, Txepetxi
esker*

Baina, nik esango nuke, noraeza dela eta, garrantzitsuena, egina gutxietsi gabe, zera dela hain zuzen ere, hizkuntz berreskurapenerako enpirismoan oinarritutako teoria soziala finkatu eta esperimentatu dela. Hau izan liteke datozen urteotan indar berriz lanean segitzeko daukagun euskarririk garrantzitsuenetako bat, Txepetxi esker³.

Gehiago esaten ausartuko naiz: Teoria honek praktikan bere emaitzak ematen dihardu. Han-hemenka herri-taldeak sortu dira eta sortzen diharduten ilusioa, ezin bestekoa zaiguna, zabalduz.

Bestalde, azken bolada honetan euskalgintzak hartzen diharduen joera zabala, elkar-lanerako deiak ugalduz doaz: Mikel Ugaldek (Jazten 3a), Joseba Kanpo (Egunkaria 91-11-15), M.K. Garmendia (El Mundo 91-11-11), Xabier Lete (Egin 90-12-15), Joxe Azurmendi (Jakin) EKB (91-10-30eko zirkularra).

III. Diskurtso eta praktika berriaz

Arestian aipatutako Txepetxen ausnarketa noraeza eta impasetik irten eta euskararen berreskurapena lortzeko tresna baliagarria delakoan nago, norabide argia eskeintzeaz gain berreskuperaren prozesuaren plano eta urratsak argi adierazten bait ditu.

Etorkizunean euskaldunok periferia izateari utzi nahi badiogu siglen zurrumbilobatiko eten gabeko autonomiari eutsi beharko zaio, euskara izan dadin euskaldunon faktore elkartzaile nagusia⁴.

Beraz, orain arteko ihardunak eman beharrekoak eman dituen horretan bat bagatoz eta ahuldadeak non ditugun konturatu bagara, orain artekoa ez da guztiz alferrikoa izan eta ekin diezaiogun, berandu baino lehen, egitekoa ez baita gutxi, pazientziatz, gune sinbolikoa osatu eta euskalgungoaren konpaktazio-trinkotzeari geroan inpaktatu ahal izateko.

Trinkotzearen garrantzia

Trinkotzea mikroplanoetatik ekinda, herritik, makroplanoetara, nazionalera, hizkuntz berreskuratze-lanak sozializatuz, garrantzitsutzat jo behar dugu. Ez dago eta nazio proiekturik herririk gabe. Hortaz, kualitatetik kuantitaterantz, kalitatea konpetentzia, koherentzia eta kontzientzian oinarritzen denez, tribalizatzea oso gaitza izateaz aparte gizarte zibila kohesionatu eta euskal komunitateari dagokion protagonismoa ematea zihurtatzen du: -TZAT egin beharrean -KIN / -GAZ eginez.

Modu horretan lortuko dugu, kantitatearen lirura faltatik aldenuz, hainbat eta hainbat deskubrimendu egitea. Alferrik galtzen diharduen euskaltzale anitzen sentimendua operatiboa bihurtuko da. Bestela, orain arte bezala, asko izaten jarraituko dugu baina aldi berean bat ere ez. Hau da, afektiboa efektiboa egin behar da.⁵

Proposamena ez da berria

Esandako guztiak badu herri honen memorian erreferentziarik: *auzolana* eta *herrigintza*. Siglen aurretikoa gainera.

Interes amankomunak garatzeko ezaguna da gure artean Auzolanaren metodoa, hori da benetako Herrigintza: interes amankomunak bat eginez, Auzolanean, Elkarlanean garatzea, Herrigintza hezurmamituz, aparteko interes partikularrak uxatuz.

Euskararen etorkizunaz komprometituri gaudenok Auzolanaren beharrean gaude. Siglen dantzatik autonomia gordetzea ezinbestekoa da eta hori baten multiplizitatea baino multiplizitate anitzak onartzean datza. Horrek osagarritasunaren filosofia onartzea dakar herri-dinamika eta ekimen instituzionala puzzle bereko piezak bilakatuz⁶

*Etorkizunean
euskaldunok
periferia izateari
utzi nahi badiogu
siglen
zurrunbiloengandiko
eten gabeko
autonomiari eutsi
beharko zaio,
euskara izan dadin
euskaldunon faktore
elkartzaile nagusia*

Bestalde, makina-desiratuma, eten gabeko aurkikuntza-desioa, jarri beharko da mekanika-desiratumaren aitzinean, hau betikoaren errepikapena bait da.

Aipaturiko guztiaren medioz lortuko dugu ekimen, energien eta baliabideen optimizazioa eta behar beharrezkoa zaigun SINERGIAS ihardutea.

Fernando MUNIOZGUREN
Adorez eta Atseginez mintegiko partaridea

¹ “Bateginik kanpaina entseiatu zen, Alderdiek lardaskatu bakarrik egin zuten dena. Okerrera da, Alderdiak gabe ezer egiterik ez dagoela, eta Alderdiekin ez gehiago. Kulturgintzako hemengo politikari zerbait egozten badiogu, beraz, dena absorbitu nahia da, irentsi, urrupatu, protagonizatu, edo anulatu” Joxe Azurmendi (Jakin 58)

² Jon Urrujulegik “Egin”eko kolaborazio batean eta Basarrik “Egunkarian” eginiko adierazpenak eta EIFE deritzan ikerketalanetarako ondorioak: Euskaldunak erdaraz pentsatzen du.

³ J.J: Txabarri: “Txepetxen lanak arnasbidea irekitzen du euskal soziolinguistikan”. I. Larrañaga: “Berreskurapena lortzeko urratsak argitzen ditu”. J.M. Torrealdai: “berreskurapen prozesu osoa birpentsatzeko aukera” (Eguna).

⁴ “Diferentzia guztien gainetik gizakiok behar dugula elkartzten gaituen zerbait eta herri bezala ere euskaldunak behar gendukeela estrategia politikoen gainetik bilduko gaituen aterpe bat eta leku hori sentimentu komun en leku bezala ikusten diat” X. Lete (Egin 90-12-15).

⁵ Prezio altuegia ari zaigu kostatzen. Nekagarria da. Jende baliozko gehiegi kiskaldu zaigu. Proiektu on gehiegi lardaskatu. Historia luzea da. Historia guztiek izaten omen dute irakurketa modu bi gutxienez. Horregatixe ez zaigu interesatzen orain berriro, ez bata, ez bestea. Horregatixe izan behar du euskaltzale denon desideratua, desideratua

gutxienez, kultur inizatiben ugaritasun libreak, administrazioak herri-ekimen horren zerbitzutan diharduela, beti ere kultur gileen beren protagonismoa sustatuz, goi koordinazio orokorra eta finantzaketa ziurtatuz, eta ez oro bere zakuan hartuz. (Joxe Azurmendi, Jakin 58).

⁶ "Ordua da, garaia da, momentua da, une egokia; pentsatzen dugunok euskara gure hizkuntza nazionala dela esan beharra daukagu: Sasoia da! (...) Instituzioek zein herri inizatibak, denok daukagu premia elkarren arteko egitasmo baterakoira iristeko". Joseba Kanpo Lasuen (Egunkaria, 91-1-15).